

ETB-ko zuzendariari gutun irekia

ZUZENDARI jaun agurgarria: Hiruzpalau aldiz ahaleginak egin ditut zurekin harremanetan jartzeko, Apirilaren 7an ETB 2-k "Toma y daca" izenaz emandako programa ganorabakoa agertu aurretik eta geroago ere bai, nolabait Urusoloren behialako "Rifi-Rafe" zori-tzarreko hura okertu eta gehitua dirudiena. Ordea, ezinezkoa gertatu zait zurekin mintzatea, eta nire nahiazen berri izan duzula oso ongi dakidan arren, argi dakusat azken aste biotan ez diozula egoki eritzi neure deiei erantzuteari.

Ene ustez, Real Academia Españolaren edozein kidek TVEko zuzendariari zenbait aldiz telefonoa joko balio, beronek, gizalegeri xumeenagatik besterik ez balitz ere, kasu eginen lioke, eta seguraski gauza bera gertatuko litzaioke ETB-ra deituko balu. Baina ageri denez, euskaltzainok ez dugu orain arte lortu tratu berbera gozatzeko eskubidea, oraino honekin deskontesia berbera bi aldiz pairatu baitu zureganetik. Horregatik, eta pertsonalki bidal niezazukeen eskutitza irakurriko zenidakeelako garantiarik ez dudanez gero —oraindik aurrekoaren erantzunaren zain bainago—, zentzuzkoago irudituko zait gutun ireki hau igortzea, agian norbaitek horren berri emanen dizulakq esperantzan.

Programa hori emateko zen eguncan goizean harriturik ikusi nuen ETB-k, ni gonbidatzeke, faxez bidalia zidan galdera (*¿Se sienten los vascos discriminados por el euskera?*) ez zela prentsan egun hartantxe agertzen zena bera (*¿Se sienten discriminados los vascos que no saben euskera?*). Beste idazketa horrek euskalduneri irain garbia egiten zien, horrekin, inplizituki euskaraz badakigunok ez dugula inolako bereizkeriarik pairatzen adierazten baitzen; eguneroko bizitzak derakuskuna gutziz bestelakoa izanik.

Bestaldekik, egun horretan jakin nuen, gure eztabaidaz epaimahai batek bere erabakia eman beharko zuela. Horrek kezkatu egin

ninduen, agian gai horren berri ez zekiketen pertsonak, nondik eta ETB-tik, hots, gure hizkuntza eta kulturaren alde sorturiko erakunde batetik, euskararen aurkako mezua eman zekazetela pentsatuz; zoritxarrez gertatu zen bezala. Hori dela eta, uste izan nuen komeni zela zurekin arazo horrek ekar zitzakeen ondorio larriet mintzatea, gauzak aurretik behar bezala antola zitezten. Zu ez zeundela erantzun zidaten, eta, dirudienez, zure ondoko ordezkoa ere ez. Hortaz, programan zerikusia zuten pertsona batekin jarri ninduten, baina horrek, euskal arazoaz erakutsi zuen sentiberatasun-falta absolutuaz, ez zidan piperrik ere ulertu (nahi izan?). Eta hala ere, txarenaren beldurrez, programara joan nintzen.

Hantxe jakin nituen beste partaideen izenak, ia guztiak azken orduan aldatuak. Ustepeko gauza guztiez eztabaida egin daitekeela uste dut, baina ez da gisa, ene eritzi, engai-nuekin, Euskal Gobernuko, Euskaltzaindiko eta legea errespetatzen duten beste pertsona batzuk inbitatzea, legearen kontra joan eta herri honetako hizkuntza ofizialeatiko bat baztertu nahi duten beste zenbait lagunekin zadura-badura bat egiteko. Aho berroz "vascuncea" Espainiako harri bitxitut goraitpatzen dute jendaila horiek baina egiazki, euskara museoetako formol izotzuan ongi hilkik ikusi nahiko luketena, eta gure mintzairaz hitzik jakin gabe gure Akademia edo literatura hizkuntza jendaurrian iraintzeko prest.

Ez zen oso erudugarria izan UGT-eko er-tzain bat —salbuespenekoa, nik uste—, irudiz Euskal Herriko gizarte osoaren zerbitzurako polizia bat alegia, euskara ikasteko erraztasun guztiak izan arren, gure mintzaira ikasteko gai izan ez diren lagun gutxi batzuen defentsa beroan ikustea, langabezia euskara ikasi nahi eta ahal izan duen hainbeste jende dagoenean. Seguraski Atutxa jaunak atsegin handiz ikusiko zuen ETB-n erantzin hori euskal hiritar guztiok zein bere gogoko hizkuntzan tratatua izateko dugun eskubidea zapuzteko

justifikazioak ematen. Ez al zuen —eta ez al du— gauza bera egiten polizia nazionalak eta goardia zibilak? Zertarako zetorren, beraz, horiek aldatu nahi izatea?

Andre soziologoaren kasua ere tamalgarria izan zen. Norberak jadanik menderatzen ez duen eta bere famili giroan ez darabilen hizkuntzaz izan dezakeen gutxiespen berezia kontutan harturik, aspaldian hamaika eta bost gehiago ikusia naizen honek ongi uler dezaket pertsona batek, bere hitzez lehen hizkuntzaz euskalduna izan arren, bere seme-alabak A eredura bidaltzea, horrek gure mintzaira behar bezala irakatsi ez arren, autofobia, hots, norbere buruarenganako mesprezioa, ez baita arrotz gure Herrian. Baina euskal telebistak salbuespenekoa kasu traumatiko eta pitxi hori erreferentzia nagusitzat bereziki hautatzea, hau da, haurren hezkuntz ereduaren aukera egiteko adibide objektibo, zientifiko eta soziologiko gisa, izenik gabeko eromena eta erantzunkizunak eza iruditzen zait.

Hala ere, aurkezleak, horikeria bikainenaren eredu zoragarria erakutsi zuen programa osoan zehar, eta hori argi gelditu zen, telebistan garrantziko fñabardurak egitea hain zaila delarik, ea euskaraz dakiena ez dakiena baino euskaldunagoa ote den galdetzean, zinez sadukear trampa ezin hobea. Epaimahairako hautaturiko zortzi pertsonetarik batek ere euskaraz ez jakiteak ere programaren arduradunen profesionaltasun nabaria eta zentzu handia klarki salatu zizun. Eta hori guztiari gure diruz ordaindurik, eta zure onespenarekin, zuzendari jauna.

Bestarik ez. Burukritika hitza guztiz ulertezina izango ez zaizulakoan, hurrengorako neurriak hartzea espero dut, horrelako aldre-beskeriarik berriro gerta ez dadin. Adeitasunez.

XABIER KINTANA
EHU-KO IRAKASLEA ETA EUSKALTZAINA

BERRIAKZIRI



NELSON MANDELA
Hego Afrikako lehendakaria
EL PAIS



JOSEAN KEREJETA
Togresko lehendakaria
EGIN



JOSE RAMON DE LA MORENA
Irati esolataria
TRIBUNA



JESUS GIL
Aletiko de Madrideko lehendakaria
EL DIARIO VASCO

«Lehen hil nahi nindutenak orain lehian ari dira ni besarkatzeko»

«Nire ustez, denboraldi hau ona izan da, agian onena klubaren historia osoan»

«Ez da ona kazetari batek boterea izatea; bai, ordea, prentsa instituzio gisa horren jabe izatea, irizpideak sortzen baituitu»

«Neure buruaz beste gitea pentsatu nuen»

Gernikako txinpartak (1937ko apirilak 26)

BERROGEITA hamar urte joan dira. Minondoa bizi da. Bizi-bizi oroimen hartatik bonbuloa bezala goratzen da. Suz landuko gogoan dugu, Lau anai ginen Euskadiren alde gabilzta-nok. Sakabanatuak. Ni, neu, gazteena, Elantxobe paregabeko herrian egona nintzen erre-fuxiatu moduan. Bilbon apaiz ikasurtea ireki zuten. Eliz gizon nagusi batzuek Elizaren askatasuna eta jarraibidea agertu nahi izan zuten. Errefuxiatu bezala diru laguntza eske Gotzi ordeko zen Galbarriatu jaunarengana jo nuen. Laguntza bai, baina Elantxobetik gion etorrera ezinezkoa zitzaidan. Gernikara etorri nintzen. Nere anai bat etxepeko zegoen familia batera.

Arratsaldea zen. Apirilko arratsaldea. Udaberriko eguraldia. Txuribeltza. Bestalde, astelehena. Gernikako astelehena. Feri eguna. Mendi gaineko kanpaita dangadaka hasi zen. Abereek badute ekaitzaren sena, urrundik datortzen zurrumbilao sumatzen dute, eta har-kaizpera edo zuhaitzpera doaz. Ni ere kezka eraginda etxetik irten nintzen. Haize oharrez eta oihuz jantzia zetorren. Luno bidea hartu nuen. Laister nuen hegazkinaren burrunba ze-

ru gainean. Estolda batean sartu nintzen. Luze-luze etzanda, aurpegi muturra zulo ertzean. Begiak begiagot eta belarriak belarriago. Lehen bonba tximista bezala, trenaren geltoki inguruan jausi zen. Sua eta kea. Dardara ez nolanahikoa. Bonbak hustu ondoren, joan zen. Kezka eta beldurrak eraginda nere gordeleku-it irten nintzen mendirantz. Lunoko eliz aurrean jende multzoa. Aurpegiak larri-larriak, begi zorrotz-zorrotzak, ezarri garratz-garratzak... Baina berriro hazetozten. Denok larrialde batean korrika, iheska. Soinu, trumoi zarata... dardara. Laukote gazte bat aurkitu ginen pinupe batean. Lurrean luze-luze etzanda, lurpean sartu nahirik eta ezinean. Goitik behera, tximista bezain prest, buru gainera, pinu tontorrera, jostorrotzaren dantzarekin balak ezker-eskubi, atzez-aurre... inguru guztian. Denok beldurrez ito beharren. Gutako batek bazuen hil-larria. Hark esan zituen behin eta berri «Nere Jesukristo Jaunak»... «*Me pesa de todo corazón... Me pesa de todo corazón*»... Behin eta berri esan eta esan, «*Yo prometo firmemente*»... «*nunca más pecar*»... Infernua infernuari deika. Gazte hark bazuen infernuko berriak... Lurra dantzan, zerua su-

mendi, eta gu labe gorrian. Bala, bala gainean. Pinuko adarrak zauriturik... Egunak ilunabarra zekarkien. Altxa ginen, altxa... Zuloetatik, lurpetik, jendea txorabiatuak azaltzen hasi zen. Haiak aurpegiak! Beldurra, negarra, garrasia... Eta Luno goitik hura ikuspegia, argazki gorri-gorria. Gernika osoa sutan, Mendi sua. San Juan sua... Korrika eta larri, elkar astinduz. Malda behera... Inguru batean gudari bat zuhaitzpean, zuhaitza sustraitik lurre-ra, eta gudaria lehertua, Meabe batoiloa, hain zuzen. Gernikan nintzen: aurrez aurre, San Juan Eliza, Ikazkinak piztutako txondorra zirudien. Su bizi-bizian. Su-mingainak zeru aldera dantzan. Sorgin dantza. Ikuspegi beldurgarria. Nere albo-alboan gizon heldu batek bere bi besoak bular gainean gurutzaturik oihu batez esan zuen:—*Civilización!—Cristianismo! ¡Esto es lo que nos traen estos!*... Une hartantxe bertan, San Juan elizaren dorrea (txondarraren burua) erre-errerik lur jo zuen... Irudia eta hitza... Negargarria... Gero, gero-koak.

EUGENIO ARREGI
APAIZA

ZAKILIXUT



© Olariagak